

MAHAMUD ETA BILBOKO ITSASADARRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Bilbo, 1511ko ekainaren 22a. Joana Gaztelakoak –Joana Eroa ezizenez ezagunak– Kontsulatua abian jartzeko errealia eman zion hiriari. Ordura arte, artilearen merkataritza kontrolatzen zuen Burgosko Kontsulatuak Bizkaiko golkoko portuen arteko lehia estua sustatu zuen. Baina handik aurrera, Bilboko itsasadarrean bertakoek hartuko zituzten erabakiak. Kontsulatu berria itsasadarrarekin, nasekin, dragatzeekin... zerikusia zuten gaiez arduratuko zen. Bertako merkataria, ontzi-jabe edota olagizonek zainduko, berrituko eta hobetuko zuten itsasadarra, eta portu naturalaren merkataritza jarduera bultzatuko zuten horrela.

Horrenbestez, XVI. mendearen erdialdean Bilboko itsasadarra bideratzeko lanak egin zituzten lehenengoz. Eta lehen bideratze hartan Gonzalo Saez de Mahamud nabarmendu zen. Batetik, lainei egindako ekarpen ekonomikoagatik. Eta bestetik, izenaren jatorri musulmanagatik. Gogoan izan behar da, garaiko foru arauen arabera, moriskoek, juduek eta kristautasunera konbertituek debekatuta zeukatela Bizkaiko jaurrekian bizitzea. Are gehiago kargu publikoak izatea.

Baina Gonzalo Saez de Mahamudek kargu publikoak izan zituen. Bilboko errejidore izan zen 1543tik 1551ra eta,



Goian, Bilbo XVI. mendean, Franz Hogenberg-en grabatua (1575). Garai hartan egin zituzten itsasadarra bideratzeko lehen lanak, nagusiki Gonzalo Saez de Mahamudek bultzatuta. Lerro hauen alboan, Mahamuden sinadura, Camilo Villabaso Echevarriak 1881ean 'Euskal-Erria' aldizkarian jasoa.

1575
Gonzalo Saez de Mahamud.

besteak beste, Merkatarien Fidel izendatu zuten. Agiriek erakusten dute botere ekonomikoa ere bazuela; dohain eta zerbitzu askotan haren izena agertzen da diru kopuru handien aldamenetan. Bizkaiko familia nagusiekin, ezkontzen bidez, lotura zuela badakigu, hala nola Zurbaran eta Markinatarrekin.

1881ean, Camilo Villabaso Echevarria foruzale eta diputatuak Mahamuden sinadura jaso zuen *Euskal-Erria* al-

dizkarian, itzal handiko beste bizkaitar batzuenarekin batera. Eta azpian, pertsonaiaren azalpen labur baten ondoren, zera idatzi zuen: "Zer jatorri zuen familia hark? Abizenak adierazi bezala, haren leinua moriskoa izanik, nolatan etorri zen bizitzera konbertitu berriekin ere muturreko etsaitasuna nagusi zen herrialdera?"

Egun, galdera horiek ez dute oraindik erantzunik. ■



MARI YAMAZAKI / TORI MIKI

Antzinako Erromako manga

Mari Yamazaki manga egileak *Thermae Romae* komikiaren hamar milioitik gora ale saldu ditu. Egungo Japoniara bidaiatzen duen terma-ingeniarria da protagonista. Halaber, Yamazakik antzinako Erroman kokatu du *Plinius* komiki-sorta. Erromatar Inperioaren eta Japoniaren arteko loturak xeble samarra dirudien arren, egilearen esanetan hainbat paralelismo daude bi

munduen artean: "Testuinguru espiritual politeista, bainu komunak, kanpoko ekarpen kulturalak baliatzeko gaitasuna...". Gainera, joan den irailean hainbat erromatar txanpon aurkitu zituzten Okinawako Katsuren gazteluan, eta aurkikuntzak Erromatar Inperioaren eta antzinako Japoniaren arteko harremanei buruzko galdera asko eragin ditu. ■